

KANALAK

BEZEROAREKIKO KOMUNIKAZIOA ETA SALMENTA

Gure enpresak bi komunikazio-kanal izango ditu, bezeroek ahalik eta aukera gehiago izateko gure produktua eskuratzeko

Lehenengo aukera interneten bitartez, hau da, webgune baten bitartez erosi ahal izango dute bezeroek gure produktua. Bigarren aukera, kontsumitzaileek arazoak baldin badituzte interneten erosteko, “Meatchine” denda fiskioetan erostea da, hala nola “El Corte Ingles”-en edota “Media Markt”-en. Dena horietan sal egingo ditugu produktuak haiek bezero kopuru askoz handiagoarengana iristea ahalbidetzen baitigute, jakinda irabazi-marjinal gutxiago izango ditugula.

Beraz, gure enpresak kanal zuzena eta zeharkako kanala izango du.

Beste alde batetik, produktua erosi eta gero bezeroak zenbait zalantza edo arazo baldin baditu, kontaktuan jarri ahalko da enpresarekin, webgunean utziko dugun gmail-kontu bati idatziz edota hortxe ere ipiniko dugun telefono zenbaki bati deituz.

PRODUKTUAREN BANAKETA

Webgunean egindako erosketak postaz banatuko ditugu bakoitzaren etxera edo negoziara, eta garraio-enpresa baten bidez bidaliko dugu produktua bezeroarengana.

Beste alde batetik, denda fisikoetan erosten dituztenei bi aukera emango diegu: zuzenean erostea eta beraiek etxera eramatea, edota gure garraio-enpresak produktua haien ordeztu etxera eramatea.